

bidegileak



Begoña Bilbao (1932-2005)

Egilea:

JOSEBA IRIONDO

Katu kaleko jostuna

Lerri ugari ibiltzen zen garai hartan Katu Kalen. Familia gehientsuenek izaten zuten zerriren bat Bermeoko herrigunean, ahal zutena janez hazten ziren, gizendu eta etxerako. Hala ere kantoi hartan bezala ingurukoetan ere arrantza zen ogibidea. Itsasoan, baporeetan aritzen ziren gizonezkoak eta kaian emakumezkoak. Batzuk ontzientzako sareak atontzen, beste asko ekarritako arraina kontserbatarako gazitzen. Ez zeukan Begoña gazteak komeria erraza etxean, idazle izatea amesten zuela esateko.



Begoña Bilbao Alboniga (1932-2005)

Beste alaba guztiek bezala *Kastañero* ezizena bereganatuko zuen familiako alaba zaharrenek liburuak maite zituen. Begoña txikitatik izan zuen irakurketarako zaletasuna, etxe-koen haserre eta guzti.

«Txikitan irakurri eta irakurri egiten neban» aitortzen zuen. Zaletasun honek amarekin sesio ugari sortzen zion. Sarri entzun behar izaten zuen liburuen orriei mokoka jarraitzen bazuen, liburu guztiak sutara botako



Katu kalekoa zen familia. Luisa amarekin, urtebete zuenean

zizkiola. Alaba bezala burugogorra eta egoskorra zen ama, eta maiz garrek belzten zituzten liburuak. Erraza da asmatzea alaba ez zela isiltzen eta amak garrasika erantzuten ziola, amorrualdiak negarrez bukatzen zituelako Begoñak. Arrantzaleen etxe hartan ofizioen bat ikasitako norbait behar zuten, artistarik ez.

1932ko azaroaren 23an jaio zen Begoña, Bermeon. Luis Bilbao eta Luisa Albonigaren alaba zaharrena zen, Miren eta Marisaren aurrekoa. Herriko karmeliten ikastetxean jaso zuen oinarrizko heziketa. Eta oinarrizkoa besterik ez.

Zeukan zaletasun nagusienetakoa etxepean bizi zen adineko emakume baten laguntzaz asetzen zuen. Haren bidez iristen zitzaizkion eskuratu ezin zituen liburuak. Besteak Guadalupe izebak lortzen zizkion. «Zuk irakurri» esaten zion bere amaren ahizpak, ezkutuan izenburu ezberdinetako liburuak ekartzen zizkionean. Luisa ama zorrotza zen, literaturaren haizekeriak atsegin ez zituen.

Gerra inguruko urte haietan bizimodua aski zaila zen. Aita baporean zebilela ama kontserba lanetan aritzen zen. Eta hura edo antzeko besteren bat zen alabarentzat ikusten zuen etorkizunik txukun eta argiena. Edo bestela josten ikastea. Bilbon erakutsi zioten jostorratza erabiltzen. Liburuekin harro-haizetzen zen nerabearen lehen lanbidea hura izan zen: jostuna.

«Oso habilidosie» zen Ane Ormazaren arabera. Txikitako laguna zuen Anek Begoña. Katu kaletik ezagutzen zuten elkar, baina lagun minak josteta ikastaro haien ondorioz egin ziren. «Ni gazteagoa nintzen, baina Begoñak bera baino gazteagoekin ibiltzea nahiago izaten zuen beti, horrek ere bera gaztetzzen zuela pentsatzen bait zuen.» Ikasleekin irakasleekin baino nahiago, eta seme-alabekin gurasoekin baino gusturago.

Honenbestez, Bermeoko neska gazte askori bordatuak egiten irakatsi eta gero denbora kontua izan zen herrian bi josteta denda zabaltzea. Mertzeria hauek nola zuten izena



Hiru alaben artean zaharrena zen Begoña. Hemen Mirenekin

galdetzen saiatu naiz, baina askok ez zekiten erantzuna. Ane bere lagunak esan zidan zergatik, kostako umore apartarekin: Garai hartan dende ez zuten izenik behar. «Begoñarenak zirela jakitea nahikoa txo.»

Guraso abertzaleak

Abertzaleak ziren Kastañerotarrak. Aita Luis kartzelan egondakoa zen gerrako urteetan. Bost urte egin zituen giltzapean, eta bete ez zuen heriotza zigorra ere ezarri zioten nazionalak, errepublika babestu zuten beste hainbat euskalduni bezala. Urte haietan etxean bizi, entzun eta edandakotik indartu zitzaion Begoñari beste maitasun handia: Euskara.

Euskaltzale, irakurle amorratua... Hala ere mertzeria zabaldu aurreko urteetan bihotzeko kilikarik gozoenak Manu izeneko bermeotar batek sortzen zizkion. Itsasgizona zen Manu. «Akaubako ona», benetan zintzoa, Arantza San Pedroren iritzian.

Arantzak nobio bikotea zirenetik ezagutzen zituen Begoña eta Manu. Jostuna gibel-handia eta etxeakoandre eskasa omen zen. Kalerako egokia, baina etxerako ez hainbeste. Horregatik Manurekin batera «tandem perfektua» egiten zuten, beren lagunak iritzian. Elkarrekin betetzen zituzten asmo gehienak, batek ideia eta gogoia jartzen zituen, besteak gogoia eta lan arduratsua. Zu etxean eta ni kalean, eta Begoña saltsarako beti prest. 1956an ezkondu ziren Bermeon, jostunak 24 urte zituela.

Ezkonberri haiei eta euskaldun askori Francoren diktadura noizbait bukatuko zen itxaropena —artean baikorregia— indartzen ari zitzaien 60ko hamarkadak aurrera egin aha-

la. Bermeoko eta Euskal Herriko giro politikoa gori-gori zegoen, galdatzen ari zen. Giro politiko bizi hartan, gero eta garrantzitsua-
goak ziren jostun eta etxekoandre bermeo-
tarrarentzat ofizioz kanpoko afizioak, hots,
idazkera eta euskara.

Irakurtzeko zaletasuna ez zitzaion batere
ahuldu eta idazten ere hasia zen, beretzat
eta isilpean besterik ez bazen ere. «Beti ze-
bilen inguruan ikusitakoak kontatzen, eta as-
kotan idatzi ere egiten zituen», gogoratzen
zuen Ane lagunak.

Baina gizarteak bizi zuen egoerarengatik,
euskara babestu eta indartzeko ekimenetara
zuzendu zuen kezka guztia. Bermeon eraba-
kigarria izan zen, besteak beste, Gotzon Ga-
ritaonaindia abadeak gure hizkuntzaren alde

eginiko lana. Begoña alboan izan zuen euska-
ra irakasteko lehen ahaleginetan.

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala
gau eskola sortu zen Bermeon ere. Esan gabe
doa, saltsa guztietako gatza izatea atsegin zuen
emakumeak bertan izan behar zuela, nahitaez.
Han hasitako bideari luze eutsi zion Begoñak,
euskara irakasle izan baitzen urte askotan.

Oinarrizko ikasketekin, jostuna eta etxekoan-
drea zen. Eta irakaslea. Ane eta Arantza bere
lagunek diotenez «autodidakta» zen, asko
irakurri eta bere kasa ikasteko gaitasuna
zuen. Horregatik ia inortxori ere ez zi-
tzaion harrigarri egin emakume handi hura
maistra lanetan ikustea, nahiz eta egunez jos-



Udan, Lagako hondartzan

Irakurle handia zen 15 urterekin



Familiarekin afaltzeko prest, 1956an

keta dendetan aritu. Gainera «itxuen artean begibakarra» irakasle izan zitekeen garai haietan, inork ez baitzuen euskara ikastaroak emateko titulazio ofizialik, Pili Zarain Bermeoko hizkuntza irakasleak gogoratzen duenez.

60ko hamarkada bukaerarako hasia zen bere ametsetara hurbiltzen. Euskararekin jolasean ari zen, gustuko zituen gazteak alfabetatzen, irakurtzeko zailtasunik gabe eta aldian behin bere idazkera saioak egiten.

Ordurako ama ere bazen. Larraitx eta Ana Lupe Fernández Bilbaoren ama.

Kantariaren itzala

Ez da ohikoena, baina Analupe alabaren itzala izanik egin zen ezaguna Begoña Bilbao euskal kulturgintzan. Itzala izatearen esanahi figurati-boa osorik hartuta, urte askotan alaba kantaria zegoen lekutik gertu zebilelako ama ere.

Abestea maite zuen Begoñak. Ahots ederra zeukan eta kantatzeko aukerarik ez zuen galtzen, bere koadrilako nesken arabera. Fes-tetan, ezkontzetan eta Bermeoko koroan... aukerarik ez zuen galtzen mikrofonoa hartu eta abesteko. Zailtasunari esker berehala

ohartu zen etxean harribitxia zuela, Analupe alaba.

60ko hamarkadako azken urteetan ahoz aho zebilen delako euskal kantagintza berria, nahiz eta urte haietan hastapenetan baino ez zebilen. Garaiko kantari, artista eta idazle ezagunenak funtsean *Ez dok amairu* taldeko kideak ziren. Abeslariak ezeze, doinu eta letra askoren egileak ziren gehienak, gerora kantautore deitu izan direnak. Mikel Laboa, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi eta aski ezaguna den artista zerrenda luzea.

Bi alaben artean, bat nabarmendu zen kantari egokia. Begoñari txikitan irakurtzen zituen liburuak uzten zizkion izebaren izena zera-
mana. Analupe, eta izebarena izan zen gelditu zitzaion izen artistikoa: *Lupe*.

Oso gazte hasi zen Analupe kantuan. 9 urterekin dagoeneko jendaurrean xumeki ari-
tzen zen, Bermeon eta inguruetan. Baina koskortu zenerako, beste abeslari ezagunen emankizunetan esku hartzen hasi zen Lupe. 12 urte besterik ez zeukan, eta esan beharrik ez dago garaiak eskatzen zituen protesta eta eduki marduleko abestiak idazteko



Manurekin «tandem» perfektua osatzen zuen. Ezkontza egunean

gazteegia zela. Hori Begoñaren eginkizuna izan zen.

Lupek taula gainean abestu zituen haiek izan ziren Begoña Bilbaok idatzi eta argia ikusi —edo entzun— zuten lehen adierazpen literarioak. Alaba gaztearen lehen diskoko ia abesti guztiak —bat ez beste guztiak— Begoñak idatziak ziren, Bangladesh ezaguna tartean.

Begoñak berak Joxemari Iriondori kontatu zion 2001ean abestiok aldaketa eta askata-

sun gose zen gizartean jaso ohi zuten oihartzun eta harrera nola oroitzen zuen. «Lupek Palestina abestia estreinakoz kantatu zuen jendaurrean, Beotibar pilotalekuan, eta kale-ira irten ginenean ahoz aho zebilen kantua, nahiz eta behin bakarrik entzun zuten. Garai ederrak ziren.»

Deigarria egin zait Begoñaren lehen abesti ezagunaren izena, *Palestina* nahiz eta kantua-
ren benetako izena *Kanta aleluia* zen. Azpimarragarria deritzot lehen abesti ezaguna eta bere azken idazlan handiak izena bera daramatelako, *Palestina zure mina nobelak*, alegia.



Taxi gidari lanak egiten zizkion senarrak Begoñari.
Hemen Santanderren



Analupe txikiarekin.
Gaztetu zenean alabari zetozkion «otsoak» uxatzen zituen

Otso asko

Zentsuraren garaia ere bazen. Ordurako Begoña ohitua zegoen guardia zibilarengandik ihesi ibiltzen, Bermeon euskara sustatu eta erakusteko ekimenetan buru-lepo zebilelako. Baina kantaldietakoa nekagarria egiten zitzaien.

Emankizunen aurretik taularatu nahi ziren abesti guztien zerrenda eta letrak eman behar zitzaizkien zentsurako arduradunei. Haiek erabakitzen zuten —batek daki nola— zein abesti zen kantatzeko egokia eta zeintzuk baztergarriak. «Agian zortzi abesti eskatu eta bi bakarrik kantatzeko baimena ematen ziguten» gogoratzen du Analupek.

Hala ere, askotan tranpatan aritzen ziren eta galarazitakoak ere abesten zituzten. Horrek



Berak abestu eta ingurukoak kantuan ipintzen zituen

Manu aita estutzen zuela aitortzen du kantariak. Amari buruz deus ez du aipatzen. Irudimen askoren beharrik gabe ikus daiteke Begoña oholtzaren bazter batean, ilunpean, itzalean, hain berea zuen ausardiarekin, gus-tura, diktadurak debekatzen ziena egiten.

Kantariaren itzal horretan ezagutu zuten askok Begoña. Eta itzaletik erabakitzen zuen, antza denez, nork zeukan bere alabarengana hurbiltzeko baimena. Hein handi batean poliziarena egiten zuela alegia.

«Zer dator ama, alabari erakustera edo alaba zaintzera» galdetzen zuten askok. Hori galdetuta berak barrez erantzuten zuen: «Biak egitera joaten nintzen, erakutsi baina baita zaintzera ere, kar kar».

Behin baino gehiagotan entzun behar izan zituen Lupek inguruan zebilzkion mutil gazteen haserreak, beti amarekin zebilelako. «Zer nahi duzu ba, 13 urte dauzkat eta» erantzuten zien.

Begoñak 2001ean ETBn eskainitako elkarrizketa batean umorez hartzen zituen hitzok. «Bai bai, egia da, otso asko zebilen garai hartan Analuperen atzetik, eta haiek uxatu beharra zegoen.» Artistaren ama zen eta ez zeukan edozeini hurbiltzen uzteko asmorik.

Abeslariak gogoan dauka egun, baldintza haietan ezinezkoa zela mutiletan egitea, «han ezin zen inolaz ere ligatu».



Ikasle gazteak bezala, festan. Indiar jantzita ahizpa Miren eta Marisa hippia

Handik urte batzuetara, Lupek 16 urte zitue-
nean utzi omen zion Belgikara bakarrik joa-
ten, betiere Antton Valverde zaindari zuela.
Hori Begoñak esana da. Alabak bestela uler-
tu zuen, barrez: «Amak sekulako beldurra
zion hegazkinez bidaiatzeari, eta horregatik
baino ez zidan utzi Belgikara joaten, eta tu-
toareekin!».

Makina bat kantaldi eta herri bisitatu zuten
60ko eta 70eko hamarkaden ertzetan Lu-
pek, Manu aitak eta hirurek. Handik aurrera
urte askotan egingo zuen bezala, Manu zin-

tzoak autoz eramaten zituen etxeko neska
biak, Larraitx alaba izekorekin utzita. Ezin-
besteko taxi gidaria zen aita.

Baina emankizunetako protagonistaren ama
izateaz gain, bere herrian ere musikaren alde
egin zitekeen guztian laguntzeko prest zegoen
Begoña. Bermeoko orfeoian kantatzen zuen
eta «parean harrapatzen zituen haur guztiak
ere kantatzen imintzen zituen», lagunek dio-
tenez. Besteak beste, bere eskarmentuari es-
ker lortu zuten 70eko hamarkadan Bermeo-
ra Maria del Mar Bonet handia eramatea.



Ibarrangelun, Xabiertxo bilobarekin

E

Batuarekin kalapita

Gotzon Garitaonaindia abade, poeta eta euskaltzale urduliztarra 1963an heldu zen Bermeoko Mañu auzora, seminarioiko ikasketak amaitu eta berehala. «Mundu hau poz eta alaitasunean bizitzeko egina dago, osterantzean ez dau merezi bizitzerik» esateko gai zen olerkaria ezinbestean egin zen Begoña Bilbaoren lagun mina. Biek eta beste hainbatek bultzatu zituzten 60ko hamarkadaren bukaera aldera Bermeon euskara irakasteko gau eskolak, gero AEK eta egun ezagutzen ditugun euskaltegien aurrendari izango zirenak.

Baina euskarazko formularen erabilerak berak eztabaida sortzen zuen Euskal

Herri osoan bezala, Bermeon. Euskara batua bai edo ez. Oraindik ere kostaldeko herrian gaia ateratzea nahikoa da xextra berotzeko.

Batuaren aldekoa zen Begoña ezbairik gabe, baina herriko hizkera —nortasunez beterikoa— maite zuen aldi berean.

Euskara batuarekin «disgusto ugari» hartutakoa zela diote bere lagunek. Antza denez



Gotzon Garitaonaindia abadearekin batera sortu zituzten gau eskolak



Bermeoko euskara babesten lan eskerga egin zuen

behin baino gehiagotan entzun behar izan zuen batuan aritzen zirenek «adarrak eta buztana» zituztela. Bat baino gehiago behar-tutako hizkeratzat zuen euskara estandariza-tuaren kontrako «boikot kanpainak» antola-tzeraino iritsi zen, «hura giputzen euskerie zelako».

Muturreko jarreraren erdian ez zuen entzun-gor egiten Begoñak.

«Sarritan entzun behar izan dugu Bermeoko euskara oso txarra danaren leloa. Milaka bi-der jaurti deuskue aurpegira gaztelaniazko hitz asko sartzen dogulakoa, txarto erabil-tzen dala aditza, batere ez dogula erabiltzen eta ez dakit zenbat gauza gehiago. Honela-koak entzun ezker, ez da harritzekoa kon-plexuz beterik egotea. Askotan lotsatuta sentitu gara, eta ez gitxitan, euskaraz egin beharrean gazteleraz mintzatu gara.»

Bermeoko euskara zenbateraino maite zuen erakusten dute hitzok, eta adierazpenon euskarria dira pentsatzen zuenaren froga in-dartsuena. *Bermeoko euskara kresaltsua, adi-tza eta fonetika*, liburuan datoz hitzok. Liburu aparta *Bermeoko berba eta esamolde kresal-tsuak* lanarekin batera plazaratu zuen 2003an. Liburu gomendagarriak biak ere, itsas kutsu-ko euskara ezagutu eta, bide batez, barre al-gara saioa egin nahi duenarentzat.

Milaka hitz eta esaldi bildu zituen liburuotan idazleak, asko galduta edota galtzeko zorian. Sinesten zuen galeraren arrazoia euskararen erabilera murriztu izana ez eze, «berba lan-duak erabiltzearen alde egiten dugula, geure geureak direnak baztertzea dela».

Bermeoko euskararen arerio edo Batuaren babesle sutsutzat zeukaten guztiak leudeke oker, beraz.

Bi maitale zituen bihotz euskaldun hura eus-kara irakaslea zen 60ko hamarkada amaie-ran. Gau eskolak izan ziren lehendabizi, Ber-meoko AEKren sorreran ere buru-lepo aritu zen, eta azken urteetan bere lagunaren izena zeraman euskaltegian jarraitu zuen, Gotzon Garitaonaindia euskaltegian.

Erretiratu aurreko bost urteak, Bermeoko udaleko euskara zerbitzuan aritu zen.

Nork esan zion Bermeoko euskara ez zuela maite?



Bermeoko Udalean euskara teknikari izan zen bost urtetan

Unibertsitatean ikasle

Karmelitetan oinarritzko ikasketak egin ondoren, jostun, emazte, etxekoandre, ama, abesti egile eta euskara ikasle izan zen Begoña Bilbao. Eta beste mila saltsatan zebilen, berarengan ohikoa zenez. Orduak egiten zituen irakurri eta idazten, askotan ingurukoak sutan jarri arte. Baina bere burua idazle egokitzat ez zeukanez, unibertsitatean Filologia ikasi nahi zuen, gabezia hura konpontze aldera.

Egun Gotzon Garitaonandia euskaltegian ari izaten den Pili Zarainen laguntzarekin, unibertsitatera sartu ahal izateko ikasketak egin zituen,

25 urtetik gorakoentzat. Unibertsitateko giltza lortu eta 50 urterekin eman zuen izena Deustuan, Euskal Filologian, 83-84 ikasturtean.

«Beranduko ikaslea izan nintzen bai. Ta gustora egin nuen gainera, lagun onak egin nituen Deustuko Unibertsitatean. Sekula ez nuen sentitu baztertzerik, gazteak ziren denak ta gaur ere oso harreman onak dauzkat beraiekin, ikasle izan ginen 42 lagunekin.»

Andolin Eguzkitza, Jon Kortazar eta Gotzon Garate izan zituen irakasle kuttunenak. Azken honek berari buruz dioenarekin masaila gorrituko litzaioke:

«Nik ez nuen berarekin aparteko harreman esturik izan, beste askorekin dudak bezala. Baina nire ustez behin ere Bermeoko euskarari buruz sekula egin den libururik onena idatzi zuen. Horrek benetan harrotzen nau, ikasle izan den norbaitek miresten dudak zerbait idazteak alegia. Zorionak emanaz idatzi nion, ze ona dan! Nolako esaldi jatorrak bildu zituen. Bermeoko euskara hutsala dela diotenak ahozabalik utzi zituen.»

Bermeoko hizketa pobrea zela jendaurrean esan zutenen artean Nestor Basterretxea eskultorea oroitzen du Gotzon Garatek. Behin eskutitza idatzi zion irakasleak artista plastoari egunkari batean, hain justu ere Begoña Bilbaoren *Bermeoko euskara kresaltsua* liburua

irakurri zezala gomendatuz. Deustuko maisuaren arabera, idazlan honengatik bakarrik kostaldeko herriak «asko zor dio Begoñari».

Laudorio eta guzti, Begoña berak bere burua idazle kaskartzat zeukan, edo, gutxienez, hala adierazten zuen behin eta berriro. Unibertsitatean ikasitakoarekin hizkuntza menperatzen zuela sentitzen zuen, baina idazkera ez, azkarregi, presaz idazten zuelako.

Edorta Jimenezek, Mundakako idazleak, euskarak horrelakoak ere behar zituela erantzuten zion. «Hobe horrela, ikasteko asko gelditzen zaiela aitortzen dutenak, dena dakitela pentsatzen dutenak baino.» Garateren iritzia zen azken hau.



Deustuko Unibertsitatean Garate, Eguzkitza eta Kortazar izan zituen irakasle



1982ko Korrikan, Joan Mari Torrealdairekin

Garai hartan Deustuan Filologia irakasten zutenek nekez ahaztuko dute Bilbao abizeneko ikasle hura. Hainbat gazteren artean nabarmena zen. Helduena, eta Gotzon Garateren esanetan, handiena ere bazen, kilo dezente hartuta zegoelako. Zailena nor zen ez ohartzea zen, nahiz eta ez ei zen galdera asko egiten joaten zen horietakoa.

Bihotzez gazte izan zen beti Begoña, eta gazteekin eroso sentitzen zen. «Beti nabil gazteekin» esaten zuen. Gauzak ikasteko beharra zeukan, eta aukera adinez gazte zirenek ematen zioten.

Horrela, eta berak jarritako lanarekin, lortu zuen lizentziatu izatea 55 urteko neska gazteak.

Ezin ahaztuko dugu ametsa betetzeko, egunero joan behar izaten zuela Bermeotik Deustura, eta gehienetan taxi gidaria senarra Manu izaten zuela.

«Ez banau Deustura eramaten, bila etortzen zait gauean. Izan ere klaseak berandu bukatzen dira eta ez zait gustatzen autobusa hartzea.»

Batun batune

Bermeoko esamoldeen hiztegiaren arabera, gezurrak eta egiak, denak batzen dituen da *batun batune*. Baina saltsa guztietako gatzari edota festa guztietako txistulariari ere *batun batune* deitzen diote herrian.

Esaera hori zen Begoña Bilbaorentzat egokiena bere koadrilako Ane eta Arantzaren ustez, zer edo zer mugitzen zen bazter guztietan ikusten zelako haren sudurra. Euskararen aldeko ekimenak non, Begoña han. Euskaraz plazaratutako aldizkariak idazlanak behar zituztela? Ez ziren urrun ibiliko jostun izandakoaren hitzak.



Gotzon Garatek gogoratzen duenez, «andre handia zen», jan zalea

Unibertsitateko ikasketak hasi zituenetik erabat eman zion irakurri eta, batik bat, idazteari. Horren lekuko dira hainbat aldizkarietan plazaratutako lanak. Gainera 80ko hamarkadako lehen urteetan hasi zen bere izena literatur sarietan agertzen, irabazleen artean askotan.

Bermeo aldizkarian plazaratu zituen lehen saioak. «Atzerriratu baten itzulia» kontaketa izan zen lehena, 1983an. Jaso zituen hama-

bost garaikurren artean ere lehena, Bermeo saria izan zen. Garrantzi ezberdineko 15 sari irabazi zituen 20 urtetan, ia urtean bat. Ez dago batere gaizki! —bere hitzak erabiliz— «idazle kaxkar batentzat».

«Beno batzutan pentsatzen dut, ba (saria) eman badoztie zeozergatik izango da. Idazten dakidalako? Igual kasualidadie!» Umiltasun handiarekin hartzen zituen sariok, inondik ere.

Lehen aipamen handia Irun Hiria ipuin lehia-ketarekin jaso zuen 1990ean, «Isuritako ura ez da batzen» lanarekin. Eta 2001ean azkena, gazteentzako Zarauzko Lizardi saria bereganatu baitzuen «Ibaia maitasunaren oztopo» ipuinak. Ordurako dozena pasa sari zeuzkan arren, azken honekin zeharo arduratuta zegoen Begoña, hain begiko zituen gazteentzat idatzia baitzen.

Gazteentzat idazteak «ikaratu» egiten zuen. Askoren irakasle izan zen euskaltegian eta Bermeoko eta Portugaleteko institutuetan, eta jakitun ikusten zituen. Berak 13 urterekin zekiena baino askoz ere gehiago omen zekiten. Begiruneaz gain, gazteek irakurtzea nahi zuen, seguruenik berak izandako zailtasunik ez zutela ikusten zuen eta. Nerabeen kontuetan sartzeak izutu egiten zuen, baina saiatu zen «Ibaia maitasunaren oztopo» lanean.

«Ipuin erromantiko eta platonikoa da, Bermeo eta Julieta apur bat. Gazteei gustatzen

bazaie horrek frogatuko du oraindik erromantizismoa gelditzen dela.»

Erromantikoa izaki irabaziko zuen agian Lizardiren izena zeraman saria, 2001erako emakume batek bigarren aldiz.

Urte berean argitaratu zuen autoreak bere lan bilduma osoan miresgarriena den liburua. Itzulpen bat da, 1922an Henri Capdeviellek eginiko *Bermeo la sauvage* liburuaren euskaratzea. 1912an enbatak Bermeon eginiko txikizioen haritik dator istorioa.

Miresgarria hitza erabili dut, ausarta delako benetan frantsesez idatzitako liburu bat itzultzea, frantsesez hitz bakar batzuk baino ez dakizkien norbaitek! Analupe alabak, Ane eta Arantza lagunek, Pili irakasle kideak...guztiek aitortu dute Begoñak ez zuela frantsesa menperatzen, ez eta gutxiagorik ere. Nola euskaratu zuen bada? «Hiztegia hartuta, motel», barrez erantzun didate gehienek, idazle bermeotarraren ausardiak mugarik ez zuelako.

Atrebikuntzie ez zitzaion falta, eta batun batune zen. Baina bidaiaria ez, batere ez. Atzerriko herri eta kulturen nondik norakoak ezagutzeko jakinmin amaiezina zuen, eta urrutiko zokoei buruz hamaika aldiz idatzitakoa zen. Hala ere jakin-goseak ez zuen behin ere bultzatu estranjeriara. Manurekin oporretara joaten zen, baina Peñiscolara ia beti. Eta Santa Polara azken urteetan.



Bilboko Udaleko Emakumeak Kontari saria jasotzen



Bermeotarren omenaldia, Lizardi saria irabazi zuen egunean



Zarauzko Udaletxean, Lizardi saria jasotzean



Ez zen oporretan urrun joaten. Hemen Alakanten



Manu zendu aurretik elkarrekin egin zuten azken bidaia



Saltsa guztietako perrexila omen zen bere lagunen esanetan

Hori bai, Analupe alaba Afrikako poesiari buruzko lana prestatzen ari zenean, ama dagoeneko Guinea Bissaun izana zen, eta hango olerkarien berri zeukan. Latinoamerikako liburutegi askotan ere ibilia zen, dozenaka liburu irakurriz, etxetik irteteke. Internet zuen bidaide.

Sareko informazioarekin eta irudimenarekin bidaiatzen zuen Begoñak. Ez zuen gehiago behar atzerriko herri eta kulturak bisitatze-ko, bidaia buruan egiten baitzuen. «Bai, izarretan bizi zen apur bat, bere munduan», bere lagunak ezagutzen zuten ederkien. Horrela ezagutu zituen Bangladesh, ibaiak, itsasoaren bestaldea, atzerria eta Palestina. Arabiarren eta juduen arteko gatazkari buruz 1973an idatzi zuen estreinakoz, *Palestina* abestian.

Palestina, azken geltokia

Itsas belar usaineko hitzen artean azkena, bere nobela bakarra izan zen, *Palestina zure mina*. Aurrez aurre ezagutzen ez zuen gatazka batean hondoratu zuen luma, ezinbesteko ausar-diaz. Palestinako egoeraren berri ematen saia-tu zen, hiru gazteren bizitzetan oinarrituta.

Liburua aurkeztu eta aste gutxira ezagutu nuen idazlea, Gernikako etxean. Ibarrangelun Manu senarra galdu eta berehala saminak Gernikara eraman zuen, Larraitx eta Analupe alaben ingurura. Hutsuneak eta bakardadeak atera zuen Ibarrangelutik, baina hala ere Gernikako etxean bakarrik bizi zen.

Ordurako kimioak eta erradioak garai batean indartsu eta mardul itxura zuen gorputz han-dia ihartuta zeukaten. Gaixotasuna oso au-rreratuta harrapatu zioten —edo agian, aurre-ratuta harrapatzen utzi zuen— baina umorez, maitagarri hartu ninduen. Palestinako gataz-kari buruz solasean aritu ginen, patxadaz.

Hura ere gazteek irakurtzea nahi zuen. Horre-gatik euskara errazean idazten saiatu zen, edonork uler zezan, zeukan euskara maila edukita ere. Ekidistantzia guztiak bazterrean utzita egin zuen nobela, bizitzako une haie-tan ez ziolako gogoak ematen objektibo iza-tea, kontaketa hotza egitea.

«Gaza kaiola handi bat da» zioen. Gazteek irakurketaren bidez gauzak alda ditzaketela

sinesten zuen. Eta horretarako hiru protagonista gazte sartu zituen orrialdeetan: iparra-merikar bat, judu bat eta palestinar bat.

«Giza bonbengatik ez balitz, delako suizidarik ez balego, ziurrenik ahaztuta edukiko genuke Palestina. Horiek ez dira eroak. Palestina hiltzeaz dago, palestinarrik gabe hilko da. Ez daukate ezer galtzeko, irabazteko deus ez, ohore bat da aberriarengatik hiltzea.» Palestinaz ari zen, uste dut.

Liburua irakurrita sinistuta nengoen noizbait Palestinan izana zela. Heretzeko kontrolak zeharkatu, Nouseirateko errefuxiatu eremura iritsi eta Alcazar hotelean lo egiten zuelako Begoñak. Zenbat aldiz gainbegiratu ote zituen interneten okupatutako lurraldeetako mapak, ekialdeko zenbat albiste moztu ote zituen egunkarietatik bere irudimenezko

Gaza hura sortzeko. Arabiarrez edota hebraieraz ez zekien, beharrik ere ez.

«Ea gauzak aldatzen diren» esanez agurtu ninduen. Bere nobela eskuartearen neramala nik ere beste liburu bat emango niola agindu nion. Ez nuen emandako hitza bete. Bitxia zen, baina Palestina abestiarekin hasi eta Palestina nobelarekin amaitu ziren ezagutu genizkion letrak. Begoña Bilbao 2005eko maiatzaren 9an hil zen, Artxandako Santa Marina ospitalean.

Irakurtzen eta idazten joan zen, ametsaz eta egitasmoz beteta. Noizbait Bermeoko emakumei buruzko liburu bat idatzi nahi zuen. Zerbaitetan bazebilen. Nobela bat idatzia zeukan eta lagun eta familiakoei eman zien irakurri zezaten, beren iritzia ezagutzeko. Ziurrenik hura ere gazteek irakurtzekoa izango zen, eta gehiegizko apaltasunez esaten zuen bezala, «ez oso ongi idatzia».



Lizardi saria emakume batek irabazteak bereziki pozten zuela esan zuen



Bertatik Bertara saioan hitz egin zuen azken aldia, hil baino hilabete batzuk lehenago

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie: Analupe Fernandez Bilbaori, Larraitz Fernandez Bilbaori, Arantza San Pedrori, Ane Ormazari, Pili Zaraini, Marije Laiunori, Gotzon Garateri, ETBko artxiboari

Hamabost sari	Hamasei argitalpen
1982, Bermeo saria	1983, «Atzerriratu baten itzulia», <i>Bermeo</i> aldizkaria
1984, Bermeo saria	1984, «Ustebako jazoera», <i>Bermeo</i> aldizkaria
1987, Bermeo saria	1989, «Burutu gabeko amets bat», <i>Bermeo</i> aldizkaria
1988, Bermeo saria	1991, «Leiarrezko promes bat», <i>Bermeo</i> aldizkaria
1990, Irun Hiria saria	1991, «Isuritako ura ez da batzen»
1996, Pedro Atarrabiakoa saria	1989-98, Pedro Atarrabiakoa sarien bilduma
1997, Erroxape 1.saria eta 2.saria, Bermeo	1998, <i>Itsasoa beti emankor</i>
1997, Itsas gizonen gizarte institutuko saria, Bilbo	1998, «Itsasertzean gertatu zan», <i>Idatz eta Mintza</i> aldizkaria
1998, Kimetz saria, Ordizia	2000, «Azken hasperenak», <i>Idatz eta Mintz</i> aldizkaria
1998, Idatz eta Mintz saria, Bilbo	2000, <i>Maitemintze berantiarra</i> , beste egileekin bilduma
1999, Agustin Zubikarai 3. saria, Ondarroa	2001, «Ibaia maitasunaren oztopo»
2000, Agustin Zubikarai 3. saria, Ordizia	2001, <i>Bermeo basatia</i> , itzulpena
2000, Idatz eta Mintz saria, Bilbo	2002, <i>Orain nere txanda da</i> , Emakumeak Kontari bilduma
2000, Bilboko Udaleko «Emakumeak kontari» saria	2003, <i>Bermeoko euskara kresaltsua.Aditza eta fonetika</i> .
2001, Lizardi saria, Zarautz	2003, <i>Bermeoko berba eta esamolde kresaltsuak</i> .
	2004, <i>Palestina, zure mina</i>

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2006ko urria
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2476-2 84-457-2477-0
L.G.:	BI - 2747-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística